# mundua k guztiontzat behar ko l uke

## ASPANIF ELKARTEA

Ane Pir at ak medikuar engana j oan behar izan du bizikl et an zebilela er or i et a besoan min har t u duelako. Er iet xeko it xar on gelan t opat u da Uxuer ekin.







JAIOTZETIK?
BAI, EZPAINA ETA AHOSABAIA EBAKITA NITUELA JAIO NINTZEN. GEROZTIK EBAKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO EGIN DIZKIDATE... BAINA GERO ETA HOBETO NAGO.
HORREGATIK ZAUDE MEDIKUEKIN OHITUTA.


NIK ERE MAKINA BAT MEDIKU PASATU BEHAR IZAN NITUEN MARRAZO BATEK HANKA JAN ZIDANEAN!
MARRAZO BATEK? BENETAKO PIRATA AL ZARA?
MARRAZOARENA ASMATU EGITEN DU. PATAKON HANKA BAKARRAREKIN JAIO ZEN...


MARRAZO BAT? BELDURGARRIA IZAN BEHAR DU.
TIRA, NI BEZALAKO PIRATA AUSARTEK BELDURRA ZER DEN EZ DAKITE, BAINA EGUN HARTAN.... BLABLABLABLA
ALDIERO DESBERDIN KONTATZEN DU MARRAZOAREN ISTORIOA.
ETA ZUK ZEIN ABENTURATAN EGIN ZENUEN EZPAINEAN DUZUN ORBAINA?
JAIOTZEKO ABENTURA ZIRRARAGARRIAN!
UXUERI ERE MARRAZO BATEK EGIN ZION KOSKA URRUTIKO ITSASO BATEAN ABENTURAN ZEBILELA!







Erbi ezpaindun edo ahosabai hautsidun haurren gurasoek osatzen dute nagusiki, baina baita sendagile espezialistek (zirujauak, logopedak, ortodontistak…) edota gaitzak hartutako pertsonek ere.



Elkartearen helburu nagusia familiei informazioa eta laguntza eskaintzea da, gaitzaren tratamenduaz, horren ondorioez eta lagungarri izan daitezkeen gizarte baliabideez.



Administrazioaren aurrean aldarrikapenak egitea; hezkuntza arloko profesionalen artean ezagutza zabaltzea eta ikerketa klinikoa sustatzea ere badira elkartearen erronkak.

Koskojales kalea 7, 1.DIAlonsotegi, 48810- Bizkaia
aspanif@gmail
Bizkaia: 688844269 / Gipuzkoa: 688844418
Araba: 688621246